

Zabaleta auzoko jaiak hasi dira

■ Gaur iluntzean Teresa sorginaren etorrerarekin, ekintzez betetako asteburuari hasiera emango zaio



Asteartean Landaberi Antzerki Eskolako LHI mailako haurrek *Top Model* eta *Rock and Roll* lanak eskaini zuten.

Astearte arratsaldean danbatero batzuen hotsa entzun ahal izan zen Lasarte-Oria osoa. Horiek Zabaleta Auzoko festei hasiera ematen zioten suzirien hotsa izan zen.

Egun hauetan, haurrentzako eskulanak, jolasak, japoniar bonbak eta Landaberi ikastolako LH1, LH3 haur eta gaztekoek eskainitako antzerkiez gozatu ahal izan zuten auzoan.

Asteburuan ekintza ugari

Gaur, 20:00etan Teresa sorgina dator, baina aurretik Zabaleta-ko antzerki taldearen emanaldia, haurrentzako merienda eta opari zozketa antolatu dira.

21:00etan, gau musikala hasiko da. Lehenik, Kantu afaria eskainiko du *Xumela* koruak, Landaberriko dantza garaikide taldeen emanaldia egongo da ostean eta dantza

egiteko gogoekin geratu direnek dantzaldia dute gauari amaiera emateko.

Bihar, haurrentzako puzgariak goiz eta arratsaldean, eskoba eta mus txapelketa; 18:30ean, *Hipo eta Tomax* pailazoaren emanaldia; ostean, herri kirolak haur eta helduentzat. Eta gauean, Iñaki Zelaia, Unai Agirre, Miren Artetxe eta Ane Labaka bertsoan ikusteko aukera eta gazte rock gaua Usurbilgo *Mendeku Itxua* eta *Skasti* taldeen eskutik.

Igandean, berriz, Landaberi ikastolako gaztekoen dantza saio, ohiturazkoa den Tellerigaina, auzokoak, Larrekoetxe-Ostadar eta Erkide taldeen arteko proba misto nagusia, herri bazkaria, toka txapelketa, *Porrotxen* bihurrikeriak eta muxuak arratsaldeko 18:00etan eta Usurbilgo *Txe-riki* taldearen kale antzerkia. •

Haurren segurtasuna nola indartu

Atzo arratsaldean, Josune Martiarena psikologo klinikok *Haurrak: beren buruekiko segurtasuna indartzeko giltzarriak* hitzaldia eskaini zuen Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Hitzaldi hau Lasarte-Oriako Sanitate departamentuak antolatutako *Nola hezi gure seme-alabak* hitzaldi sortaren baitan dago eta, oraingoan, Josune Martiarenak haur txikien segurtasuna indartzeko hainbat gomendio eman zituen eta haurren zenbait portaeren aurrean gurasoek zein jarrera izan behar duten azaldu zuen. •



GIZARTE/3

Gazteen beharrak ezagutzeko Udalak egindako ikerketaren emaitzak

EUSKARA/5

Idazlan lehiaketa antolatu dute Munterri AEKn

KIROLA/6

Santa Ana Pala Txapelketa hasi da



Bideo Lagunak

Udaberrian ere eskaintzak!!

TIEN 21ekin RENOVE PLANa ez da bukatu

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
e-maila: jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Neure kabuz



Ezina ekinez egina

Ezinezkoa zenik ez zekite-
ne egin egin dute. Gure
herriko Landaberi Antzerki
eta Dantza Eskolako lagun-
nez ari naiz. Ezinezkoa
zena gaur normalizat har-
tzea lortu dute. Adibidez,
7. Antzerki Astea joan den
astean hasia eta datorren
astean bukatzea normal
hartzen dugu; berez, ezi-
nezkoa izan arren.

30 talde arituko dira
lanean. 300 lagun inguru
horretara jarrita. Ere
hori euskararako irabazita.
300 bihotz mila pertsonaiei
taupada ematen. 300
bihotz eta 600 hanka dan-
tzan. Hantza gora eta han-
kaz behera. Hanka sartu
eta atera. Azkenean, ikas-
tea hori baino ez da: hanka
sartzeari beldurra galtzea.
Erraz esaten da, baina
duela zazpi urte hau gerta-
tu behar zuenik batek esan
eta zorrotzat hartuko zuten;
pilulez lepo betetzeko
moduko zorrotzat, hala
esango zuten doktore sano
zenezudunek. Ezinezkoa
zen. Pentsaezinezkoa ere
bai. Ba, egina dago. Hone-
tan ere, askoz gauza gehi-
go egingo genituzke
ezinezkoak askoz gutxiago
direla sinestuko bagenu.

Orain, egindako bideari
jarraipena nola eman dugu
erronka. Handitzeak erabi-
litako praka eta zapatak
estu geratzea dakar, tamai-
na berriari egokitu beharra.
Irakasleen egonkortasuna
nola bermatu? Ikastolan
amaitu eta antzerkian
jarraitu nahi dutenei zein
irtenbidea eman? Ikastola-
ko haurrak ez diren
eskariei nola erantzun?
Denon artean hausnartze-
ko gaiak dira.

Bitartean, ez ahaztu,
Kultur Etxera etorri eta
ondo pasa! Beno, inbidia
pasa!

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Iker

Zorionak! Ondo pasa
zure urtebetze egunean!
Familiaren partetik.



Gabi

Zorionak txapeldu, ondo
pasa eta muxu handi bat,
aita, ama, Nerea, Missy eta
Dordiren partetik.



Leire

Zorionak 6 marrubizko
muxu handi guztion
partetik.



Iker

Zorionak eta muxu
handi bat aiton-amonen
partetik.



Clara

Zorionak zure 1go urtebe-
tzean. Muxu handia etxeko
txipitarentzat Eneko, Ane,
osaba eta izebaren partetik.



Olatz

Zorionak printzesa!
Marrubizko 6 muxu
handi familiaren partetik.



Ane

Dagoeneko 5 dira!
Zorionak gure etxeko
txikienari. Gurasoak,
Xabier eta Josu.



Mila

Zorionak izeba! Ondo
pasa zure egunean.
Xabier, Josu eta Aneren
partetik.



Oinatz

Bi muxu handi zure
egunean, pottokiii!!
Ondo ondo pasa! Iraitz,
aitatxo eta amatxo

Guardiak

- Ostirala, 5**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Larunbata, 6**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Igandea, 7**
Orue, Jaizkibel plaza 2,
Tel.: 943 362652
- Astelehena, 8**
Urbisondoa, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Asteartea, 9**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Asteazkena, 10**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
- Osteguna, 11**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Telefonoak

- Osasuna / Larrialdiaik**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu
bat alokatzen dut. Harremaneta-
rako telefono zenbakia,
686 674 552.

• Logela bat alokatzen da pisu
partekatuan Lasarte-Oriako
erdialdean. Pertsona arduratsua
eta ez erretzailea bilatzen da.
250 euro+gastuak. Harremaneta-
rako zenbakia, 686 932 714.

Salerosketak

• Lasarte-Oriako zentroan gara-
jea alokatzen dut. Harremaneta-
rako zenbakia, 686 674 552.

• Salgai haurra eramateko kotxea
eta aukia. Jane Nomad markakoa
da. Egoera onean. Harremaneta-
rako zenbakia, 687 965454.

• Salgai josteko makina bat. Egoera
onean. Tel.: 677 86 81 72

Lan-eskariak

• Klase partikularrik ematen
ditut: lenguaia, euskara, matema-
tika, euskara. Tel.: 693 60 12 22

• Kazetari bat behar da herri-
aldizkari baterako. Interesatuak
bidali kurrikuluma helbide hone-
tara txintxarri@txintxarri.info
edo deitu 943 366858 telefonora.

• Pertsona helduak eta haurrak
zaintzeko eta etxeko lanak egite-
ko prest dagoen emakumea naiz.
Harremanetarako telefono zen-
bakia, 616 175 328.

• Adineko jendea zaindu eta gar-
bitasuna egiteko lan egingo nuke.
Etxe barnean biziz edo kanpotik.
689 159 643

• Adin nagusiko jendea zaintzen
edo garbitasuna egiten lan egingo
nuke. Etxe barnean biziz edo
orduka. Harremanetarako, 943
368 574 eta 630 438 571 Marta

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • txintxarri@ttakun.com

www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

Oharrak jartzeko asteazken eguerdia baino lehen bidali (iragarki laburretan argitartze-
tzeo astearte eguerdia baino lehen).

Gazte Informaziorako Bulegoa



www.gipuzkoangazte.info

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Sorosleak behar dira Zumaiaarako

Sorosleak behar dira Itzurun eta
Santiagoko hondartzetan lana
egiteko. Bete beharreko baldin-
tzak: Lehen Sorospenen eta Ure-
tako Sorospenen titulazioa izan
beharko dute. Kontutan hartu

eta baloratu ere egingo dira DEA
erabiltzeko titulazioa izatea; eus-
kara jakitea eta postuarekin zeriku-
sua duen beste edozein
titulazio. Interesa dutenek bidali
dezatela beraien curriculum
mapech@cruzroja.es edo deitu
943 22 22 22 telefonora.

Jaiotzak

Malen Usabiaga Aceves,
maiatzaren 30ean
Daniela Sanz Rodriguez,
maiatzaren 29an
Nora Gandia Gabilondo,
maiatzaren 29an

Maitte Zabala
Artola, maiatzaren
29an
Maialen Martinez Rueda,
maiatzaren 21ean
Julen Rico Romano,
maiatzaren 20an



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Gazteen beharrak finkatu dituzte

■ Gaztelekuaren bidez, gazteen parte-hartzea bultzatu nahi da

TXINTXARRI

Oro har, Lasarte-Oriako gazteak pozik daude Udalak egin dien eskaintzarekin. Eurentzat antolatzen diren ekintzak ugari direla uste dute, hala nola, jardunaldiak, kontzertuak, lehiaketak, ikastaroak... Gainera, Orrigorriren bidez, informazioa egoki helzen zaiela iritzi diote. Udalak, baina, ekintzetan gazteen parte-hartzea eskasa dela uste du. Hori dela eta, esku-hartzea handitu eta eskaintza hobetu nahi du. Jesus Maria Zaballos, Gazteria eta Jai Batzordeko lehendakariaren hitzetan, gazteak motibatu eta ekintzetan parte-hartzera ohitu nahi dituzte. Zaballosen ustez, motibazio txikia dute gazteek, eta arazo horri heldu behar zaio lehenbailehen.

Helburu horrekin, gazteen beharrak ezagutzeko ikerketa egin berri du Udalak. Emaitzak jada eskuartean dituzte. Beharrak zeintzuk diren jakinda, orain, horiek gauzatzeko pausuak emango dituzte. Era berean, Gaztelekua nola antolatuko litzatekeen finkatu dute. Ikerketa Kalekka enpresak egin du, eta herriko 3.050 gazteri egin zaie galdeketa, hau da, herritarren %15ari.



Antolatzen diren ekintzetan gazteen parte-hartzea handitu nahi du Udalak.

Adinari dagokionez, 14 eta 30 urte bitarteko gazteen iritziak entzun dituzte.

Antolatu nahi duten Gaztelekua hiru gune izango lituzke. Gune batean, gazteek elkarrekin egoteko aukera izango lukete. Profesional baten laguntzarekin, euren beharrak eta interesak zeintzuk diren finkatuko lukete. Beste gune batean, berriz, gazteei zuzendutako ikastaroak eta tailerrak egingo liriteke. Informatikako txokoa, eta

ekitaldiatarako gunea ere bertan kokatuko liriteke. Eta, azkenik, hirugarren gunean, gazteentzako informazio bulegoa kokatzea proposatu dute. Hau da, gaur egungo Gazte Bulegoa. Hain zuzen, udal arduradunak pozik daude Gazte Bulegoak duen harrerarekin. Erabiltzaile gehien dituen hirugarren bulegoa da Gipuzkoan.

Beharrezko ikerketa

Ana Urchueguía, Lasarte-

Oriako alkatearen arabera, beharrezkoa zen gazteen beharrak ezagutzeko ikerketa egitea. "Helburua gaur egungo gazteen egoera ezagutzeta izan da, zein ekintza antolatzeko nahi duten... Era horretan, partaidetza zenbatekoa izango den jakin dezakegu. Esan ohi da, gazteak etorkizuna direla, baina nik uste dut, oraina ere badirela. Beraz, gazteak ere kontuan hartu behar ditugu ekintzak antolatzeko orduan".

BEKAK

Euskara ikasteko dirulaguntza

2008-2009 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarte-oriarrek beka jasotzeko aukera izango dute. Udaleko Euskara Zerbitzuak emango ditu dirulaguntzak. Eskararak Udaleko Erregistro Orokorrean ardeztu behar dira bulego ordutegiaren barruan.

Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan egin behar da dirulaguntza eskaera. Era horretan, agiri guztiak behar bezala aurkeztu beharko dira, eta, gainera, Udalak eskura jarriko dituen eskaera orriak, eta zinteko deklaraziorako ereduak ere aurkeztu beharko dira. Bestalde, eskaerari erantsi beharko zaizkio laguntzak jasotzeko eskatutako agiriak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke, 943 376 184. •

UEUren udako ikastaroetarako dirulaguntzak

UEUK, Udako Euskal Unibertsitateak, Eibarren, Baionan eta Iruñean antolatu dituen ikastaroetara joateko bekak onartu ditu Euskara Batzordeak. Urtero ematen dituzte laguntza horiek herritarrentzat. Bestalde, EHU/UPVk Donostian antolatzen dituen euskarazko ikastaroetara joateko bekak ere emango dira.

Eibarko ikastaroak uztailearen ekainaren 29tik uztailearen 3ra, eta uztailearen 13tik 17ra izango dira. Baionakoak uztailearen 6tik 10era, eta, azkenik, Iruñekoak uztailearen 20tik 24ra.

Ikastaroak astebetekoak izango dira, eta arlo ugari izango dira aztergai: psikologia, informatika, pedagogia, musika, natur zientziak, kimika, sexologia, osasuna, bertso-larritza, soziolinguistika, zuzenbidea, soziologia etab.

Ikastaroen prezio desberdina dute, langabetua izan edo ez. Oro har, matrikula, egoitza eta otorduak ordaindu behar dira. Euskara Batzordeak, matrikulak ordaintzeko laguntza emango du soilik. Dirulaguntzak eskatzeko azken eguna uztailearen 10a izango da.

Dirulaguntzei, antolakuntzari edo ikastaroei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, Euskara Zerbitzura jo daiteke, 943 376 184 zenbakian informazioa eska daiteke, eta euskara@lasarte-oria.org helbidean ere eskura daude ikastaroei buruzko argibide guztiak.



Ezkerreko argazkian Silvia Garcia, Coca-Colako lehiaketako irabazlea eta ezkerrekoan ONCEko lehiaketa irabazi duen taldea. Arg: Lasarte-Usurbil Institutua



Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak lehiaketetan garaile

Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleek ikasturte amaiera daukate aurki. Baina ikasturtean zehar ikasteaz gain, lehiaketa batzuetan, esate baterako, literatur edo kartel lehiaketan, parte hartu dute, baita sariak eskuratu ere.

Honela, 4. DBHko ikaslea den Silvia Garcia garaile ateratu da Coca-Colak antolatutako *Crea Tus Textos* literatur lehiaketan.

Lehiaketa honetan Estatu Espainiarreko ehundaka ikasle hartu dute parte ikasturtean zehar.

Asmatutako istorio hasierak idazten zituzten ikasleek, ostean Interneteko sarean zintzilikatu eta beste ikasle batzuek jarraitu eta amaiera eman ahal izateko.

Honela, Silvia Garcia Euskadiko irabazlea izan da istorioen amaiera arloan.

Jarduera honetan 3. eta 4. DBHko ikasleak egin dute lan eta koordinatu duen Gaztelekuko irakaslearen, Ana Garciairen ustez, oso interesgarria eta aberatsa izan da.

Kartel lehiaketa

Bestalde, Espainia mailan, ONCEk Braille idazkerari buruz antolatutako kartel lehiaketan ere saria lortu dute Institutuko ikasleek, Euskadi

mailako lehenengo saria, hain zuzen ere.

El Braille-Leer y escribir es poder vivir en igualdad gaia kontuan hartuta 2. DBHko ikasle talde batek, Rebeca Martinez, Melissa Valdés, Natalia Urrutia, Mario Garrido eta Maria Valientek Lidia Azpiazu irakasleak koordinatuta kartel garailea egin dute.

Zorionak guztiei eta jarrai dezatela lanean. •

Inbertsio plana eta gastu murrizketa egoera ekonomikoari aurre egiteko

Astelehenean Ana Urchueguia alkateak, Iñaki Mugika alkate orde eta Hirigintza buruak eta Jesus M. Zaballos Gazteria eta Festak saileko buruak prentsaurrekoa eskaini zuten azken hilabeteetan Udala gobernua 2009ko aurrekontuari buruzko galderei erantzuna eman nahian.

Alkateak azaldu zuenez, "Lau zirriborro egin ostean, aurrekontua aurkeztu behar genuen, baina EUDElek eta Foru Aldundiak emandako datuak iritsi zitzaizkigun eta atzera egitea erabaki genuen."

"Izan ere, Foru Aldundiak 2008rako %0,5eko igoera espero zuen, baina egungo datuek %22a galdu duela diote. Hori jakin eta aurrekontua ezin genuela aurkeztu konturatu ginen," azpimarratu zuen alkateak.

"Udalaren diru sarrerak mantendu dira, arazoa Foru Aldundiak 7 milioi eman dituela da eta adostutakoak 12 zirela. Gainera, dirua buel-

tatu behar izan diogu", eta hau atxiki zuen "Foru Aldundiaren likidazioa da giltza."

Irtenbideak

Arazaari aurre egiteko gastuak murriztea eta inbertsio plana egitea erabaki du Udala Gobernuak.

"Instrumentu legala eman diogu herriari kredituen maldaketa eskatzean. Honela, inbertsio plana egingo dugu eta kredituak eskatuko. Hauek lanak egiteko izango dira," adierazi zuen Ana Urchueguiak eta honela jarraitu zuen "gastua murrizten ari gara, festetako aurrekontua murriztu dugu, birziklapena egiten ari gara... Baina argi dugu gizarte gaitatetik ez dugula ezer murriztuko. Gastu guztiak alkatetzatik pasa beharko dira."

Lasarte-Oriako herriaren diru sarrera kopurua ona dela azpimarratu ostean, zera aipatu zuen, "oraingoz egin beharreko ordainketa guztiak egin



2009an egingo diren inbertsioetako bat izango da frontoia eta paddle pista berria.

ditugu eta irailera arte dirua dago. Hori esker, 20 milioiko inbertsioa eskatzeko adina badugu."

Inbertsio hori lanak egiteko erabiliko direla jakin arazi du, "2008ko aurrekontuetan lan batzuk atzera bota genituen

eta, horri esker, inbertsioa eskatu eta egin ahal izango dira. Horietako batzuk dira Udaletxe berria, Oriako pabilioien atzeko aldea edo Frontoi eta paddle pista berria."

Honela, kontuak orekatzea erronka handia dela onartu du

alkateak, "2010ean Lasarte-Oria ez da ongi egongo ekonomikoki, baina 2011rako oreka lortu nahi dugu. Izan ere, Foru Aldundiak eman ez dituen milioi horiek udalak aurreztu behar baititu eta kostako da."•



Irudian, asteleheneko prentsaurrekoa Hernaniko Biteri kulturetxean.

DBH osteko ikasketak euskaraz egiteko eskaintza dago Buruntzaldean

Buruntzaldeko Udalek *Aukera ezazu, aukera gehiago eta hobek* izan ditzazun DBH ondorengo ikasketetan euskaraz matrikulatzeko kanpaina aurkeztu zuten astelehenean Hernaniko Biteri kultur etxean.

Buruntzaldeko Udalek 2002an sinatu zuten euskarako egitasmoak elkarlanean emateko hitzarmena, eta horren baitan dago derrigorezko hezkuntzaren ondorengo ikasketetan, hau da, Batxilergoa eta Zikloetan, euskararen egoera hobetzeko egitasmo hau.

Arrazoi nagusiak

Prentsaurrekoan, egitasmoa martxan jartzeko arrazoi nagusiak eman zituzten.

Batetik DBHko eta DBHoko hizkuntza-ereduen arteko desoreka nabarmena dela azpimarratu zuten. "DBHn eta Batxilergoetan D ereduaren nagusitasuna erabatekoa izan arren, Zikloetan nagusitasun hori ez da ematen." Eta, bestetik, lan-munduan euskarak gero eta presentzia handiagoa duela. Horren adibide, Buruntzaldean euskara plana abian

duzen 11 enpresak dira.

Hiruorrikoa

Buruntzaldeak duen euskarazko eskaintzaren berri emateko hiruorriko bat argitaratu dute udalek. Bost udalerritan 1000 ale banatuko dira. Hiruorriko horretan, Buruntzaldean Goi Mailako Heziketa Zikloetarako sarbide-froga ikasteko dauden aukerei buruzko informazioa falta dela azpimarratu zuten.

Zikloetarako aurrematrikula epea ireki dela eta ekainaren 12ra arte egin ahalko dela gogoratu zuten. •

ZU BEZALAKORIK EZ DA!

IZAN ZAITEZ BOLUNTARIO

ATZEGI

kutxa Euskarazko Foru Alkateak Hirigintza Foru Alkateak

Okendo, 6 behea, 20004 Donostia Tel.: 943 42 39 42. www.atzegi.org



Rikardo irakaslea eta Lasarte-Oria gogoan idazlan lehiaketan parte hartu duten 6. urratseko ikasleetako batzuk.

Lasarte-Oria gogoan

■ Muntteri-AEK-ko ikasleek imaginazioa eta oroitzapenak erabili behar izan dituzte herriko iragana, gaur eguna eta etorkizunari buruz idazteko

TXINTXARRI

Herriko Muntteri-AEK euskaltegiko 6. urratseko talde batek, idazmena lantzeko era berezia izan du ikasturte honetan. Rikardo irakasleak sustatuta 8 lagunek Lasarte-Oria gogoan idazlan lehiaketan parte hartu dute.

Rikardo irakasleak aipatu digunez, helburu zehatza zuen lehiaketak, ikasleek gainditu behar dituzten idazmeneko frogak prestatzeko era paregabea izan da."

Gaia eta laguntza

Adin guztietako ikasleak daude urrats horretako gelan eta aitortu digutenez batzuei zail egin zaie gaia jorratzea. Esate baterako, "nik 21 urte dauzkat eta ez dut aldaketa askorik gogorazten," adierazi du ikasle batek, besteak ordea, "nik ez nekien nondik hasi, hainbeste aldatu da herria. Baina garrantzitsue-na zer zen ikusi eta horri buruz idatzi dut."

Rikardo irakasleak azaldu-takoaren arabera, "hasieran gaiari nondik heldu zehaztu genuen. Txikitako oroitzapenak edo bizipenak hartu genituen abiapuntu. Ostean, egungo egoera iraganarekin erkatu eta, azkenik, etorkizuneko Lasarte-Oria nolako izango zen irudikatu behar zuten."

Era honetara, irakaslearen laguntzaz, ikasturtean zehar, pausoz pauso idazlanari forma eman diote. "Gehiena etxean egin dugu. Gelan zalantzak aurkeztu genizkion Rikardori eta hark laguntzen zigun," esan digute.

Nahiz eta gela berean lanean egon, ikaskideen bakoitzaren lana zein zen jakiteko zailtasunak izan dituztela aitortu dute ikasleek. "Idazlanak irakurri eta ez nekien nork idatzia zen esaten. Kasu batean bakkarik, uste dut, asmatu nuela," esan digu batek.

Bozketa eta emaitza

"Otsaila bukaeran aurkeztu

zizuten idazlanak eta geroztik, euskaltegiko horman egon dira beste geletako ikasleek irakurtzeko. Duela bi aste, gutxi gorabehera, kutxa jarri genuen bozketa egiteko", azaldu du 6. urratseko irakasleak.

Beste ikasgeletako 30 bat pertsonak parte hartu dute bozketan. Irakasleak adierazi digunez, "lau puntu izan behar zituzten kontuan, originaltasuna, idazlanaren mamia, apainketa eta idazkera."

Asteartean egin zen bozken zenbaketa eta Okendoko palmondoa ezinez sinatutako idazlanak irabazi zuen.

Ikasle guztiak eta irakasleak berak idazlan horren originaltasuna azpimarratzen dute, "izan ere, Okendon zegoen palmondoak kontatzen baitu Lasarte lehen nola zen, orain nolako den eta etorkizunean nola izan daiteken. Baina kontuan hartzeko da bukaera arte ez dakizula palmondoa denik." •

Euskal Herriaren alde, Iniziatiba Internazionalista

TXINTXARRI

Igandean, Europako Legebiltzarreko hauteskundeak burutuko dira. Alderdi guztiek azken egun hauek aprobetxatu dituzte azken bozkek eskuratzeko.

Horietako bat, Ezker Abertzalea dugu. Asteazkenean eskainitako prentsaurrekoan, Iniziatiba Internazionalista-Herrien elkartasuna alderdiaren aldeko bozka eskatu zuten.

"Europar hauteskunde hauek aukera ezin hobea eskaintzen dute Euskal Herriko panorama politikoa eta soziala astindu eta aldaketa eta konponbide demokratikori atek zabaltzeko," adierazi zuten.

"Greba Orokorrak Euskal Herria eta langileria subjektu protagonistatzat izango dituen aldaketa politikoa eta sozialaren bidean konpromezu eta borroka mugarri bat finkatu du. Bide horrek jarraipena behar du," jarraitu zuten.

Aldaketa horrek Estatu mailan dituen oztupoak ere aipatu zituzten prentsaurrekoan, "EAEko gobernuan izandako alternantziak, benetako


aldaketa oztopatzea helburu duen PP-UPN eta PSOEn arteko Estatu paktua indartu du. Lege antidemokratikoen inposaketan eta euskal herritarrok gure etorkizun instituzionala eta soziala inolako xantaia eta hipotekarik gabe aukeratzeko ahalbideratuko luketen konponbide demokratikoen ukazioan oinarritzen dena."

Hala ere, "Ezker Abertzaleak prestutasun osoa dauka aldaketa politikoa eta soziala irabazte aldera ahaleginak eta bi egiteko. Eskenatoki demokratiko bat eraiki eta beste Euskal Herri baterantz bide egiteko."

Horregatik, "Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasunaren aldeko boza Euskal Herriaren nahiz bere eskubideen aldeko boza da; Herrien arteko elkartasunaren aldekoa; aldaketa sozialaren aldekoa; demokrazia sozial eta politikoa baten aldekoa. Orain eta hemen posible diren beste Euskal Herria eta beste Europa baten aldeko boza da. Alfonso Europara! Euskal Herria eta ezkeriarrak Europara!" eskatu zuten ezker abertzaleek. •



Ezker Abertzaleak Iniziatiba Internazionalistaren aldeko bozka eskatu zuten.



ANAIK
JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA •
Tel.: 943 362386

Kiroltako agenda

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 06

MOSSO MEMORIALA

Michelin edo moduloan

- 10:00etan, Mayi-IOB H.K.
- 11:00etan, Buenetxea-Izkiña
- 12:00etan, Obelix-Katanga
- 13:00etan, ISU Lei.-Lurra XXI
- 15:00etan, Izarra-Ainhoa
- 16:00etan, Tragoxka-Ilargi
- 17:00etan, Danena-Epel
- 18:00etan, Jordi-Biyona

SQUASH

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Astelehena 8

TXAPELDUNEN FASEA

Aitor Reyes-Alberto Udabe
Agustin Erkizia-Kinin Calvo

PILOTA

Larunbata 6

TXAPELKETA HERRIKOIA

16:15ean, Hernani-Lasarte
(Gomazko paleta) Legazpin.

SANTA ANAKO PALA TXAPELKETA

Astelehena 8

18:30ean, A. Goikoetxea eta A. Azkonobieta-J. F. Solano eta M. Arroyo
19:15ean, A. Etxebeste eta I. Lizaso- P. Artetxe eta J. P. Artetxe
20:00etan, J. Pagola eta J. Ferreira-J.L. Yeregi eta J. Prieto

Asteartea 9

18:30ean, A. Zubizarreta eta X. Eugi-X. Otaegi eta Potzu
19:15ean, I. Arluziaga eta I. Bardaji-B. Esnaola eta X. Arteaga
20:00etan, X. Garcia eta E. Urdanpilleta -J. Lizaso eta Txema

Asteazkena 10

18:30ean, M. Muñoz eta I. Muxika-J. Begiristain eta M. Begiristain
19:15ean, E. Iradi eta I. Azkonobieta- A. Iparragirre eta I. Iparragirre
20:00etan, C. Garcia eta B. Garcia-Benito eta Joserra

Osteguna 11

18:30ean, B. Odriozola eta S. Martin-A. Reyes eta R. Felipe
19:15ean, X. Etxezarreta eta M. Bardaji-A. Munduate eta J. Ariztizabal
20:00etan, E. Jauregi eta F. Ariztimuño-P. Castro eta I. Castro

ATLETISMO

Igandea 7

Goiz osoa, Landaberri ikastolako gaztetxoak Gipuzkoako eskolarteko txapelketan, Hondarribian.

Egun osoa, Irati Larrañaga eta Olatz Floresek Bidasoa Atletiko taldearekin lehiatuko dira Espainiako Elkartearen arteko txapelketako 3. jardunaldian, Alacanten.



Lehenengo jardunaldiak Okendoko frontoian jokatuko dituzte, hurrengoak Michelin enpresa ondoko pilotalekuan.

Santa Ana Pala txapelketa hasi da

Eguraldi ona iritsi da eta honekin batera, maiatzaren 25ean, Santa Ana Pala txapelketa hasi zen gure herrian.

Astelehenetik ostegunera, egunero 18:30etik aurrera gomazko pilotarekin jokatuako bikotekako hiru partida ikusteko aukera dago oraingoz Okendoko frontoian eta, ekainaren 15etik aurrera, Michelin fabrika ondoan dagoen pilotalekuan.

Lehenengo astearteko euri zaparradak lehenengo jardunaldiko hiru partidaren atzerapena ekarri zuen eta hauek ostiralean jokatu ziren. Aste honetan, bigarren jardu-

naldiko partiden txanda izan da eta ez da arazorik sortu.

Lehiaketa sistema

24 bikotek eman dute izena aurten. Hauek lau multzotan banatu dira eta 5 jardunaldi jokatu dituzte liga moduan.

Ostean, uztailaren 6 eta 7an lehiatuko diren final laurdenetan multzo bakoitzeko lehenengo bi bikoteek parte hartuko dute.

Finalaurrekoak uztailaren 13 eta 14ean izango dira eta final handia, Santa Ana Egunean, arratsaldeko 19:00etan.

Iazko irabazleek, Iñigo Arluziagak eta Imanol Barda-

gi txapela mantentzeko gogor egin beharko dute lan.

Squash txapelketa

Bestalde, Kirol Zerbitzuak antolatzen duen Squash txapelketa soziala bigarren fasean sartu da.

Iñaki Garcia, J.R. Urruzola, Julen Vega eta Iker Cañedok kontsolazio finalean egoteko partidak jokatu zituzten astelehenean eta Agustin Erkizia, Alberto Udabe, Aitor Reyesek eta Kinin Calvok ekainaren 13an ospatuko den final nagusiarako txartela lortzeko lehian dabilta egun hauetan. •



Ostadarreko neska eta mutilak berriro ere lanean hasteko deialdia jaso dute.

Hurrengo denboraldia prestatzen hasi da Ostadar K.F.-ko futbol saila

Txapelketak duela gutxi bukatu dituzten arren, futbol saileko arduradunek hurrengo denboraldia prestatzeko entrenamenduen deialdia egin dute.

Honela, Infantil Mutilak (96/97) ekainak 10, asteazkena, eta ekainak 12, ostirala, 18:00etan dute hitzordua; Kadete Mutilak (94/95) ekainak 9, asteartea, eta ekainak 11, osteguna, 18:00etan; Kadete Neskak (94/95) ekai-

nak 10, asteazkena, eta ekainak 12, ostirala, 18:00etan; Jubenil Mutilak (91/92/93) ekainak 9, asteartea, eta ekainak 11, osteguna, 19:30etan eta Regional Neskak (93 edo helduagoak) ekainak 10, asteazkena, eta ekainak 12, ostirala, 19:30ean.

Alebinen taldeko entrenamenduen hasiera zehaztu gabe dago, arduradunek hurrengo egunetan jakin araziko dute. •

Adin guztietarako igeriketa ikastaroak

Kirolen Udal Zerbitzuak uztailerako eta irailerako prestatu duen kirol eskaintzaren barruan ikastaro aipagarria dago aurten, guraso-haurren igeriketa ikastaroak.

Kirol Zerbitzuak, instalakuntzetan beharrezkoak ziren egokitzapenak egin ondoren, 2009ko Udako kirol kanpaina jarriko du martxan, erabiltzaileek egindako eskaera kopuru handiari erantzunaz.

Jarduera berri honetan hilabete gutxiko haurrek eta haien gurasoek igeriketa saioa egingo dute. Hauetan gurasoek haurri konfiantza emateaz gain, haien artean dauden loturak sendotzen dituzte.

Honela, Kirol Zerbitzuak haurtzarentzat hainbat ikastaro antolatu ditu astelehenetik larunbatera eta guztiak 10:00etatik 10:30era izango dira.

Ikastaroan izena emateko epea ekainaren 8an, astelehenean, zabalduko da.

Heldu eta haurrak

Bestalde, uztailaren 1etik



28ra bitartean, helduentzako eta haurrentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Helduen kasuan, astelehenetik ostiralera bi txanda egongo dira, 7:10ean eta 20:00etan, igeri egiten ikasi nahi dutenentzat.

Ikastaroak 100,40 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 55,80 euro.

Haurrena, berriz, bi adin tarte ezberdinetarako antolatu da eta hasiera edo erdi maila dutenei zuzenduak dira.

Honela, 2002 edo 2003 jaiotakoek bi ordutegi dituzte

aukeratzeko, 11:30ak edo 18:15ak. Ikastaroak ez bazkideentzat 143,50 euro dira eta bazkideentzat 79,70 euro.

Eta, bestetik, 1998 edo lehenago jaiotakoek 19:15etik aurrera ikasiko dute igeri egiten. Ikastaro honek kiroldegiko bazkide direnentzat 55,80 euro balio ditu eta bestelakoentzat 100,40 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943 376 182 telefono zenbakian ere informazioa eskatu dezakezue. •

Egunero

Erakusketa

25. URTEURRENA ospatzeko Lasarte-Oriako BELTZAK ERRUGBY TALDEAREN argazki erakusketa ikusgai egongo da. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara



Erakusketa

MARIAN IBARGOEN herritararen margoak ikusgai. Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak pintura eskolako ikaslea da Marian. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan



Didgeridoo-a kulturetxean

IBAN NIKOLAI kulturetxeko kafetegian izango da, Udalaren kolaborazioarekin. Kontzertu honetan ere irudiak izango dira Garrotx.lo-ren eskutik. Ibanek 3 disko grabatu ditu bakarka: Yurlungur, Didjeridoo Hotsak eta Hamar.

GAUR OSTIRALA 20:00ETAN
KULTURETXEKO KAFETEGIAN

Ostirala 5

Bideoforuma

TODO SOBRE MI MADRE filmaren bideoforuma burutuko dute eta Pilar Arrazola antropologoa izango da gonbidatua. Emakumeen Zentro Zibikoan 17:00etan. GAZTELANIAZ.



Ostirala, 12

Antzerkia

ETA KARMELE? antzezlanara Iraia Elias eta Ainhoa Alberdiren eskutik. Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean, EUSKARAZ



Oharrak

EHNarekin bozkatu

Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriarik,ekainaren 7an burutuko diren europar hauteskundeetan EHNarekin bozkatzeko deialdia luzatzen die herritarrei.

Enkarterrietara irteera

Maria Auxiliadoraren taldeak antolatuta ekainaren 21ean Enkarterrietara irteera bat antolatuta da. Goizean Karrantza eta Pozalaguako kobazuloak bisitatuko dira eta arratsaldean Balmasedako herria. Izen emateko deitu telefono hauetakoren batera: 943 363675 (Chelo) eta 943 360042 (Ixabel).

Elikagaien manipulatuak ikastaroak

Elkolabek elikagaien manipulatuak bi ikastaro antolatuko ditu Osasun zentro berriko eraikuntzako bigarren solairuko balio anitzeko gelan, Kontsumoko sailaren laguntzarekin. Batetik arrisku gutxi ikastaroa izango da, hau da, minoristei eta elikadura dendei zuzendutakoa, ekainaren 16an burutuko da 14:00etatik 17:00etara; eta bestetik, arrisku handikoa, ostalaritzako sektoreari zuzendua, ekainaren 17 eta 18an 16:00etatik 19:00etara. Izena eman edo informazio gehiagarako, 943 533 303 harremanetarako zenbakira deitu.

Danborrada entseguak

San Pedro jaiak hilaren bukaeran direla eta, danborrada entseguak hasi dira. Astelehena eta asteazkenetan izango dira Sasoetako ikastetxe gimnasioan, 18:30etan haurren txanda izango da eta 20:00etatik aurrera helduena. Garaiz iristea eta entseguetara joatea erregutzen da. Entsegu kopurua kontuan izango da. Honetan gain, ekainaren 24ean helduek ez dute entseguak izango eta Blas de Lezoko lokalera joan beharko dute 19:00etatik 20:00etara jantziaren bila.

Korrika 16ko zozketako saridunak

Korrika 16-ko arropa erostea-gatik jasotako txartelen zozketan honako zenbaki hauek ateratu dira: 98657,94136 eta 80766. Saria, aurtengo korrikako arropa sorta bat da.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Eskutitzak

Borondatezko lana

Herri honetan, borondatezko lanari esker atera dira eta aterako dira proiektu pila.

Laguntzaile izanik eskatzea tokatu izan zaigu: hau edo beste jartzea edo modu batera edo bestera kolaboratzea. Era horretan: pentsaera, kolore, jarrera, hizkuntza, gai eta adin guztiak izaten du leku. Komeni da ezaugarri hau izatea: ziklikoa izatearena. Funtzionatzeko era horrekin erretzeko arriskua izaten delako. Baina, ahal denean, erre aurretik, txandatzeko da onena.

Premiazko mentalitatea edo pentsaera dela hau uste dugu.

Horretarako ordea eskatzen jakitea komeni zaigu. Emateko gai izan behar gara eta, zergatik ez! Pilaka endre-

dotan galduko ez bagara, ezetz esaten ere jakin behar dugu!

Herrigintzan lanean gabiltzanok, elkarrekin lanean bat egiten badugu, fruitu goxoagoak aterako ditugu. Begi bistako hamarnaka adibide dago gure herrian.

Errespetatuak izatea premiazko eskubidea izan beharko luke, ala soilik diru bidez laguntzen duen horri zor zaio errespetua?

Laguntza eskatzen digutenean zorizaiztoko edo zorioneko senti gaitzeko.

Lehenengoetan: are eta nekezago egingo zaigu agindutakoa betetzea, maldan gora bizkarrean jarri eta arindu ezinezko zamaren pareko.

Bigarrenengoetan bagara, gurekin kontatu dutela, parte hartzeko aukera eta proiektu horrekiko ahaidetasuna adierazteko aukera ematen digutela sentitu dezakegu.

Zorioneko sentitzearen gertuko izan daiteke hau.

Gaur, bihar edo etzi zuri ere eskatu edo eskatuko dizute laguntza, nola edo hala esku botatzea; presentziarekin, sinadura emanaz, lana eginez, zerbait jarriz edo utziz.

Zure, gure esku dago erantzuna.

Guk baietz esan genuen. Txintxarri aldizkarian gure iritzia plazaratzeko eskatu zigutenean. Irakurle eta laguntzaile izan gara.

Hitz egitea ere ia bekatu bilakatu nahi duten garaiek dira hauek.

Horregatik, komunikabide baten magalean ahotsa izan dugulako pribilegiatuak sentitu gara idazten emandako urteetan.

Baina, redakzio taldekideei hau esan nahi diegu: kolaboratzaileekin kontaktatzen ez denean esatea dela txuku-

na. Zuzenean galdetu faltan ez gaude. Ikusi dugu berriro abian iritziaren zutabea, "laguntzaile finik ez da falta beraz" pentsatu dugu. Ederra da hori!

Hautsari pilatzen utzi gabe, hona gure kezak aire-ratzeko aukeratu dugun modua.

Gure arteko tratua zaintzeari balio handia ematen diogulako. Laguntza eske ibiltzea zer den badakigulako. Eta gurekin kontatzea bezala, gurek ez zuekin konta dezakegula pentsatu nahi dugulako.

Gure agurra herri honetan eskean eta emanean zabilatzeko guztioi.

Gora herria!

Beñat Iriondo eta Ixiar Artega

Berrerabilera eta birziklapena ingurumenaren alde

■ *Berrerabilitako etxea* erakusketari esker, helduek, zein gaztetxoek berrerabilerari buruz gehiago jakin dute

TXINTXARRI

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da gaur. Hau ospatzeko, Lasarte-Oriako Udalak asteen zehar hainbat ekitaldi antolatu ditu ingurumena zaindu eta birziklapena eta berrerabilpena bultzatzeko.

Aste osoan Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan etxe berezia ikusteko aukera egon da, *Berrerabilitako etxea*.

Etxe honetan ikusi diren altzari eta elementuak Emaus elkarteak etxez etxe bildutakoak dira. "Jendea harritzen da hain egoera onean daudela", aipatu zuen *Emauseko* arduradunak, Manu Mendezek. "Era didaktikoan berrerabilpena zer den erakutsi nahi dugu eta bigarren eskuko salmenta jendeari hurbildu. Horregatik, altzariak salgai daude. Hori bai, erakustaldia bukatzen den arte ezingo dira eraman," azaldu du Manuk.

Etorkizuna lantzen

Arratsaldeetan helduek bisita egiten zuten bitartean, goizetan Landaberri ikastolako,

zein Sasota-Zumaburu ikastetxeko 140 bat gaztetxo hurbildu dira erakusketa ikustera.


"Haurrekin hondakinak berrerabiltzen eta hauen bitzita erabilgarria zein den erakusten diegu. Ostean, berrerabilpenaren adibide, kartoizko kutxekin karpetak egiten ditugu", azaldu digu *Emauseko* kideak.

Azpirarratu duenez, "atzenmaten da ikastolan Agenda 21a lantzen dutela. Era horretara, errazagoa da haurrekin lan egitea, galderak erantzuten dituzte eta ongi gainera" eta zera atxiki zuen "ikastolan birziklapena lantzen dutela nabari da. Hala ere, ingurumena zaintzeko beste era batzuk daude eta bertan horietako bat erakusten diegu, berrerabilpena."

Emaus elkarteak

"Era berean, *Emaus* elkarteak egiten duen lana ezagutarazi nahi dugu," azaldu zuen Manu Mendezek.

"Erakusketan dagoen guztia bildutako altzariak edo arropa da, jendeak emandakoa edo etxez etxe bildutakoak eta egoera onean daudenak gainera,"



Berrerabilitako etxea erakusketak gaur ixten ditu ateak.

aipatu zuen.

Bilketaren funtzionamenduari buruz ere mintzo zen Manu, "herritarrak elkartearekin harremanetan jartzen dira eta eguna adostu ostean, altzariaren bila goaz. Honetarako, telefono zenbaki bat dugu, 902 455 855. Baina honetaz gain, badago beste era bat, Belartza poligonoan dagoen *Ekocenter* era zuzenean eramatea."

Bisitak eta karpa

Era berean, astelehenean *Arte-latx* eta Lasarte-Oriako Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun sailak *Emaus* *Ekocenter* eta Urnietako Saillapen

plantara antolatutako lehenengo bisita burutu zen. Saileko buruak, Rikardo Ortegak azpimarratu zuenez, "jendea asko harritu da *Emauseko Ekocenter* rean dauden gauzak ikusiaz."

Horregatik, sail honek herritarrak animatu nahi ditu ekainaren 16an antolatu den bigarren bisita gidatura. Goizean izango da, 9:30etik 12:00etara eta gazteleraz. Bisitara joan nahi duenak izena eman behar du, 943 670 249 telefonora deituaz.

Kanpaina bereko birziklapen karpak ere aurrera darrai

bere ibilbidean eta gaur arratsaldean Okendon egongo da.

Karpa honetan birziklapenari buruz herritarrak dituzten kezak azaldu eta birziklapena sustatzeko poltsak banatuko dituzte.

Bigarren eskuko merkatua

Honetaz gain, Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun sailak ekainaren 20an, Oria ibai ondoan, hau da, merkatu egiten den gunean, ospatuko den Bigarren Eskuko Merkatuan parte hartzea gonbidatzen ditu herritarrak.

Objektuen berrerabilpenak eta berreskuratzeak edo honen antzeko ekimenekin, ingurumenarenganako eraso mailak gutxitzen eta artikulu askoren bitzita luzatzen laguntzen du.

Hori dela eta, Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun sailak egoera onean dauden bigarren eskuko objektuak salgai jartzera animatzen ditu herritarrak.

Merkatuan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da. Horretarako 943 37 60 55 telefonora deitu behar da. •

Zorionak zuri, zorionak beti...

ATEZ ATEKO BILKETA, INGURUGIROARENTZAT OPARI ONENA